




JUAN SAN MARTIN ARGIZAIOLA SARIA



EGUNKARIA

«Hizkuntzak politika baino lehenagotik daude»

Juan San Martín omenduko du gaur Durangoko Azokak. Euskararen apologista izateagatik emango diote Argizaiola Saria.

Ainhoa Oartzabal | DONOSTIA

Bizitza osoa eman du Juan San Martinek (Eibar, 1922) euskara, euskal kultura eta Euskal Herriaz arduraturik. Kezkaturik ez ezik, lanpeturik ibili da —eta dabil— literaturan, Euskaltzaindian, EAEko Arartekoan nahiz ikerkuntzaren esparruan. Berak eginiko ekarpena esker-tzeko Argizaiola Saria emango diote gaur iluntzean San Agustín kulturgunean.

■ **Argizaiola saria jasoko duzu iluntzean Durangon, zure ibilbide profesional oparoa goraipatu nahi duen saria. Zer sentitzen duzu horrelako merezimendua jasotzean?**

Poza ematen du, egia esan, ustekabeko saria izan da. Poza ematen du zeren eta oso hizkuntzalari gutxi izan ginen frankismo garaian euskaraz lan egin genuenok, eta jazarriak izan ginen gainera, gaizki hartuak.

■ **Hain justu, horregatik izena du sariak argizaiola; gau**

ilunean argia izan omen zinetelako —iaz Klaus Niebelek jaso zuen—. Nolako zen, bada, euskararen inguruko iluntasun hori?

Jende guztiari esaten zioten orduan, Erdi Aroan bageunden bezala, «Hable en cristiano!». Nik lagunartean eta etxean beti euskaraz egin dut, eta hori esaten zutenean — askotan nire mendiko lagunekin autobusean edo trenean nindoanean esaten ziguten, euskaraz ari ginela entzundakoan—, «yo no sé arameo», erantzuten nien. Gero, beharbada, «estamos en España y hable en español!» esaten zuten, eta nik «estoy hablando la lengua más antigua de España. Yo no soy separatista, pero usted es un separador», bukatzen nuen. Lagunek esaten zidaten egunen batean nahigabe bat izango nuela, baina niri ez zitzaidan axola. Arrazoia dagonean agertu egin behar da.

■ **Aurre egiten zenien euskararen kontrako erasoei, eta horren ondorioz indartu egin**

NOBEDADDEAK 2001

CD-ROMak

Elhuyar

hiztegiak

Elhuyar

unibertsitatea

PSIKOLOGIA

OBIO

NEZIKETA ZIKLOAK

GIKO BATER SOLBADE

GIKO HAPSAKUNO

DATA-ANALISA ETA SPSS PRAKTIKAK

OLNARRIZKO ALJEBRA

PSIKOLOGIA

NEZIKETA ZIKLOAK

GIKIN HARRI GEDGRAFIA

ELHUYAR

ELHUYAR

HIZTEGIAK

AND DAVID SANDIAEN KITA

Elhuyar

Tel.: 943363040
www.elhuyar.com

KOLDO MITXELENA

«Gure historiako linguistik garrantzitsuena izan da: euskalki guztien berri zekien, historia ere bai...»

zen hizkuntzarekiko zure atxikimendua. Soldadutzan, adibidez, euskaltzetasuna areagotu eta euskara ikasten hasi zinen.

Itzultzaile gisa ibili nintzen soldadutzan, erdaraz ez zekitenei laguntzen.

Oso gaizki tratatzen gintuzten, eta, ondorioz, nire sentimenduak euskararen alde jarri ziren, erabat. Harrezkero gehiago idatzi izan dut euskaraz gaztelaniaz baino. Argitaratu ditudan 27 liburuetatik gehienak euskaraz daude.

■ Irakurle amorratua, liburuak irakurri hasi zinen euskal gramatika ikasten.

Faustino Mujika nirekin mendian ibiltzen zen lagunari eskatu nion gramatika liburu bat, eta hark Zabala-Aranarena utzi zidan. Soldadutzan nengoela irakurri nuen, ezkutuan. Euskararen gramatika ongi ikasteko egin nuen saio hori.

■ Ikastetik proposamen berriak egitera igaro zinen. Zuen garaikoa da euskara batuaren aldeko apustua, haren auzia... eztabaida gogorak izan zenituzten, zu erdi-erdian zinela, Euskaltzaindian egungo euskara izatera ailegatu arte.

Euskaltzaindian euskararen batuaren gaia atera zenean, denok aho batez onartu genuen Mitxelena jarrera. Gure historian izan dugun linguistik garrantzitsuena Mitxelena izan da: euskalki guztien berri zekien, historia ere bai...

Gure arteko eztabaida ez zen hainbestekoa izan. Baina kontra zenbiltzan batzuek beste ba-

LITERATURA

«Lan asko dago egiteko gure herrian. Literatura gehiago landu behar da; dezente dago, baina ez nahikoa»

tzuei burua berotu eta gauzak aldatzen jarri zituzten. Manuel Lekuona, adibidez, noraezean gelditu zen. Niri galdetzen zidanean nondik nora jo behar genuen, nik esaten nion Euskaltzaindiaren zeregina, akademia guztiena bezala, hizkuntza estandar bat egitea zela.

■ Zerorrek esana da euskarak halako beharrik izan ez balu, hizkuntzaren alde hainbeste lan egin izan ez bazenu, literatura gehiago egingo zenukeela. Hainbestekoa al zen behar hori?

Orandik ere lan asko dago egiteko gure herrian. Literatura gehiago landu behar da, dezente dago, baina ez nahikoa. Lan asko dago egiteko. Horregatik ez dut ulertzen abertzale batzuen indarkeria, hilketak, eta abar. Neure buruan ez da horrelakorik sartzen. Bake bidez gauza asko dugu egiteko, eta hortik jarraitu behar dugu.

■ Politikak deseingainatu zaituela diozu. EAeko Arartekoa izan zinenean izango zenuen gertuen (1989-1995).

Politikoei sarri ez dute kultura askorik. Historia ez dute ezagutzen, eta hor dabilta eztabaidetan. Esaterako, Nafarroa Euskal Herria ez balitz bezala ari dira eztabaidan. Baina Euskal Herria da. Erdi Aroa arte ez da gaztelaniarik egon Nafarroan; euskara eta Nafarroa-Aragoiko erromantzea zeuden ordura arte. Toponimia eta historia begiratzaren badugu, argi ikusten da Iruñeko Apezpikutegian dauden agerietan *lingua navarrorum* esaten dutenean euskarari buruz ari direla.

Bestalde, seigarren merindadea hor gelditu da, ezin zutelako defenditu mendien bestaldetik. Seigarren merindadea Nafarroa Beherea da, eta esaiezu haiei euskaldunak direnatz!

■ Nafarroako Gobernua beharbada ez da adierazpen horrekin bat etorriko. Ez da etorri Durangoko Azokara...

Kontua ez da bat etorri edo ez; jakin egin behar da, eta ez dakite. Erriberaraino toponimia euskaraz dago gehiena. Hori horrela da, eta iskanbilak sor-

POLITIKA

«Politikoei sarri ez dute kultura askorik. Historia ez dute ezagutzen, eta hor dabilta, eztabaidetan»

tzea ez du merezi. Errespetuz jokatu behar da. Nik euskararen defentsa egin dut, lan asko egin dut euskararen alde, baina inoiz ez naiz gaztelaniaren kontra joan. Gaztelaniaz ere lan asko egin dut, gainera. Hizkuntzak ez daude bata bestearen kontra; hizkuntzak daude, naturan, herrietan, politika asmatu baino lehenagotik.

■ Zuen belaunaldiak eginiko ekarpen handiak izango al du jarraipenik belaunaldi berriarekin? Zein norabidetan? Bai, bai. Ereduak hartu behar ditugu. Suitzan, adibidez, badira. Bernako Konferedazioko Gobernuak esan zieten lehenengo beraien hizkuntza erabiltzeko, eta gero besteekiko harremanetarako han erabiltzen diren alemaniera, frantsesa edo italiara erabiltzeko.

Eredu bera jarraitu zuen Txekiak independente egin zenean. Bertako hiriburuan oso gutxi entzuten zen hango hizkuntza; nekazari giroan bai, ordea. Hala ere, bazituzten XVIII. eta XIX. mendeko idazle oparoak.

Pragan izan nintzenean, aldiz, ikusi nuen han jendea elebiduna edo hirueleduna zela, baina elkarren artean txekoz hitz egiten zutela. Errespetuz jokatzeko zuten.

■ Zurekin batera Bitoriano Gandiaga eta Astarloa anaien lana ekarriko dute gogoratzen dituzu?

Bitoriano Gandiaga oso lagun mina nuen. Gure etxean askotan egona da, lo egitera ere etorria da. Kasik, anaia bat izan da niretzat. Nik pena hartzen dut hain gazte hil delako. Oso fina zen idazten, olerkari ona eta pertsona bezala ezin hobea.

■ Omenaldia egin aurretik Azokan antolatu duten mahai inguruan hartuko duzu parte, ezta?

Bai, eguna han pasako dut, Durangon. Eguerdian *Unamuno*, *Sabino Arana*, *Azkue eta euskara 100 urte geroago* izeneko mahai inguruan hartuko dut parte. Joseba Agirreazkuenaga eta Josune Ariztondo ariko dira nirekin batera.

BIZKAIKO MUSEOAK
DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

aeKANTUZ
Donibarrako Irrintzi **PIK** Euskaltegiko Laguntzaileak
π It · zea mays · trikizio · ken 7
selektah kolektiboa · zirikatatu · hetagarri
parasma · leihotikan · koma

XX. Mendearen argi-itzalak PELLO SALABURU SAIAKERA SAILA	Mentura dugun artean ANJEL LERTXUNDI SAIAKERA SAILA	Koldo Mitxelena gure artean SAIAKERA SAILA
Septentrio AURELIA ARKOTXA NARRAZIO SAILA	Jostorratza eta haria YOLANDA ARRIETA OSTIRAL SAILA	Bakarrizketan HAINBAT IDAZLE UMOREZKO SOLAS BAKARTIAN NARRAZIO SAILA
Thailandiako noodle izugarriak JAVI CILLERO OSINBERDE SAILA	Harria mundu, mundua harri IÑAKI PERURENA ZERBERRI SAILA	Hitzak eta giltzak IÑIGO ARANBARRI ZERBERRI SAILA

ALBERDANIA